



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko irailaren 8ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, irailaren zortzian, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeke gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, HEGUY Antton.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2022ko irailaren 2a

Afitxatze eguna : 2022ko irailaren 2a

1. ERABAKIA: PALULOS HITZARMENAREN IZENPETZEA KATXERENEA ETXEKO APARTAMENDUARENTZAT

(3.3 nomenklatura - Alokairuak)

Auzapezak jakinarazi du, herriko posta bulegoaren gainean den Katxerenean etxeke apartamenduaren berritze lanak 2022ko uztailaren 18an bukatu zirela.

Oroitarazi du, 2021eko agorrilaren 3ko Herri Biltzarrak Frantziako estatuari PALULOS (Prime à l'amélioration des logements à usage locatif et à occupation sociale/Etxebizitza kolektiboen hobetzeko eta laguntza bidez alokatzeko Prima) egiaztapena eskatu ziola herriko etxebizitza horren berritzeko. Hori dela-eta, Herriak Euskal Hirigune Elkargoko eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduko dirulaguntzak ukan ditu.

Zehaztu du, dirulaguntzaren ematea hitzarmen baten izenpetzearekin baldintzatua dela, alokairu sari eta baliabideetan gaineko mugak finkatuz. Hitzarmen horri esker, alokatzaileek APL laguntza eskatzen ahalko dute.

Auzapezak Herri Biltzarrari aurkeztu dio Frantziako estatuaren izenean jarduten duen Euskal Hirigune Elkargoarekin PALULOS deitu hitzarmena.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari Katxerenea etxeke apartamenduarentzat APL hitzarmenari loturiko agiri oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balizko boz kopurua : 12
ALDE : 12
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko irailaren 13an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/09/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/09/14an.